

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdigunea-ekialdea 15/11/2022

Saila	Laburpena	
Hirigintza	Bizilagun batek kexa azaldu du musika-bandak Urkizun duen entsegu-lokalean ateratzen duen zaratagatik. Gainera, adierazi du edozein ordutan joaten direla eta leihoak zabalik edukitzen dituztela, eta, hortaz, ez dutela betetzen entsegu-lokalen araudia.	Berrikusten ari gara; baina ez dugu beste inolako kexarik jaso gai honen inguruan.
Obrak	Bizilagun batek galdetu du ea Bittor Sarasketan kentzen ari diren saneamendu-sareko instalazioen hodiak fibrozementuzkoak diren. Esan du ezen, hala bada, ez dela protokoloa betetzen ari.	Obra Gipuzkoako Urak entitateak egin zituen eta bete egin ziren araudian aurreikusitako protokoloak.
Hirigintza	Bizilagun batek salatu du epaitegi zaharren eraikinean egiten ari diren obrak 8:00ak baino lehen hasten direla egunero.	Ez dugu horren berri. Ez dago inolako kexarik gai honen inguruan.
Zerbitzuak	Bizilagun batek Bittor Sarasketa kalea hobeto garbitzeko eskatu du. Gainera, dioenez, Urkizu kalearen hasieran dauden edukiontziak ez daude ondo kokatuta, eta zaborrontzietako bat ez da aspaldian hustu.	Mankomunitateak jakinarazi digu kale-garbitzailea astelehenetik larunbatera ibiltzen dela toki horretan, baina harik eta parkinga urbanizatu arte zikinkeria egongo dela. Zikinkeria hori inguruko obrek eragiten dute, eta haiek dira sortzen dituzten legar- eta hauts-hondarrak garbitu beharko lituzketenak. Paperontziaren gaiari dagokionez, jakinarazi digu gauza puntual bat izan zela eta, edukiontziei dagokienez, esan digute ondo jarrita daudela.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdigunea-ekialdea 15/11/2022

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Txomoko auzokide batek eskatu du erantzun diezaiotela, Pegora bidez aurkeztu duen galdetegia dela-eta.	Kexen programan islatutako kexak programa horren prozedura bidez erantzuten dira; hala ere, Txomori buruzko kexa hauek zuzenean erantzun ziren Pegoratik, Zerbitzu Sailarekin aurretiazko kontsulta eginda, 2023/02/09an; izan ere, eskatzaileak deitu egin zuen egoeraren berri jakiteko.
Zerbitzuak	Batek eskatu du konpon dadila Txomoko parkeko farola bat, aspalditik dagoelako matxuratuta edo erreta.	Lan-agindu bat egin zen erreta zegoen argi bat konpontzeko. Lana 2022ko abenduaren 1ean amaitu zen.
Zerbitzuak	Salatu du Txomoko parkeko arkupeak zikinkeriaz eta amaraunez beteta daudela. Galdetu du ea arkupeak garbitzea komunitateari edo Mankomunitateari dagokion.	Arkupeetako sabaiak ez dira Udalarenak. Elektrikariek eremua garbitzeko aprobetxatzen dute luminariaren bat aldatu behar dutenean, baina udalaren eskumena ez da amaraunak garbitzea; jabeei dagokie horiek garbitu eta mantentzea. Dagoeneko erantzun zitzaien 21275 kexan (kexa bera).
Zerbitzuak	Txomoko bizilagun batek kexa adierazi du inguru horretako jardinen ureztatze-sistema egoera txarrean dagoelako.	Ureztatze-sistema laster konponduko da, udaberrian erabiltzen delako sasoiko loreekin.
Udaltzaingoa	Batek eskatu du indartu dadila Txomo 2 zenbakiko garaheen altueraren segurtasuna.	Zerbitzu Sailarekin hitz egin da “arkillo” batzuk jartzeko bertan dagoen ispilua babesteko, garajetik ibilgailuak irtetea errazteko.
Zerbitzuak	Batek jakinarazi du arratoiak daudela San Andres inguruan.	Desratizazioaren arduradunari abisua pasatu zitzaion eta hark arazoa konpontzeko beharrezkoak ziren neurriak hartu zituen.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdigunea-ekialdea 15/11/2022

Saila	Laburpena	
Alkatetza	Aldatze 7 zenbakiko bizilagun batek galdetu du ea zer plan dagoen Errebal Plazaren obren atzerapenak herriaren ekialdean izan zuen inpaktua konpentsatzeko.	Ez dago planik. Errebaleko obra lana zaila izan da, eta atzerapenak hainbat arrazoiengatik izan dira, eta ez guztiak udal-kudeaketari egotz dakizkiokeenak. Nolanahi ere, hiriko eremu guztiak hobetzeko lan egiten da beti, baita Errebaleko eremua ere. Gure ustez, orain arte izan duen laguntzarekin erdialdea-ekialdea erakargarria bihurtu dugu, hori baitzen helburuetako bat kalearentzat eta inguruko bizilagunentzat suposatzen duen guztiarekin.
Hirigintza	Herritar batek eskatu du soluzio bat emateko Arragueta kaleari.	Horretan ari dira lanean. Eraspena egin zen eta laster obra-hondakinak erretiratuko dira.
Alkatetza	Bizilagun batek eskatu du geltoki intermodala Matsarian eraikitzeko.	Ez da Udaleko planetan sartzen geltoki hori egitea Matsarian.
Alkatetza	Bizilagun batek dio Hiri Antolamenduko Kontseilu Aholkularian, geltoki intermodala kokatzeko, kontrako botorik jaso ez zuen aukera bakarria Matsariakoa izan zela.	Plan orokorraren aurrerapenean hainbat aukera daude Matsariarentzat, baita hiriko beste leku batzuentzat. Baina Udal gobernu honen apustua Ego Gainekeo autobus geltokia dagoen bezala mantentzea da
Hirigintza	Bizilagun batek eskatu du berehala bota daitezela aurri-egoeran dauden Arraguetako eraikinak.	Eginda dago.
Alkatetza	Herritar batek kexa azaldu du Errebalgo azokan oraindik ere postu batzuk hutsik daudelako.	Postu horiek betetzeko lanean ari gara

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdigunea-ekialdea 15/11/2022

Saila	Laburpena	
Hirigintza	Auzotar batek galdetu du ea desjabetu behar diren Estaziño garajeak, Estaziño eta Azitain arteko trenbidea estaltzeko obren ondorioz.	Ez
Udaltzaingoa	Pagaegi 3 zenbakiko bizilagun batek salatu du kotxe asko egoten direla El Casco eraikinean egiten ari diren obrarenak, Blas Etxeberriako garajeen parean, eta, gainera, Estaziño lanekin, kamioiak errepide erdian lagatzen direla.	Egiten ari diren obrek hainbat arazo sortzen diete auzokideei. Ezarritakoa betetzen ez dutela edo segurtasunari eragiten diotela ikusten den guztietan, arduradunei jakinarazten zaie, eta bidezkoa den txostena egiten da, ikusteko ea zehapen-espediteren bat ireki behar den.
Obrak	Auzotar batek esan du gaur egun Pagaegira sartzea oso konplikatua dela, inguru horretako hainbat tokitan egiten ari diren obren ondorioz.	Aurreikusita dago lan hauek urte amaierako eginda egotea.
Obrak	Kexu da Matsariarako irteeran, zirkulazioaren ondorioz, estolderia asko hondoratuta daudelako eta asfaltoa egoera txarrean dagoelako.	Datozen urteetarako asfaltatua aztertuko da.
Udaltzaingoa	Salatu du beti daudela ibilgailuak aparkatuta Estaziño eta Pagaegi arteko bihurgunean, kioskoaren ondoan.	Gaizki aparkatuta egoten diren ibilgailuei dagokienez, halakorik ikusiz gero, salatu egiten da; eta zirkulazioa eragoztn badute, erretiratu egiten dira garabiarekin.
Zerbitzuak	Muzategiko auzotar batek salatu du eskailera mekanikoak ez direla geratzen 23:00etan. Dioenez, behin baino gehiagotan deitu behar izan du Udaltzaingora eta Thyssenera. Gainera, esan du eskailerak	Arazo hori konpondu zen dagoeneko. Orduz geroztik ez dugu ia kexarik izan.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdigunea-ekialdea 15/11/2022

Saila Laburpena

etengabe egoten direla martxan, ez dutelako STOP & GO sistemarik, edo matxuratuta egoten delako; eta, horren eraginez, euria egiten duenean, sistemak kirrinka egiten du.

Udaltzaingoa

Bizilagun batek galdetu du nola doan Trafiko Ordenantzaren eguneraketa, ibien edo pasabideen emakidari dagokionez. Eskatu du artikulu hori aldatzeko.

Erantzun zaio izapidea egiten ari dela eta hilabete batzuk beharko direla. Aldaketa onartu egin da 2023. urtean.

Hirigintza

Aldatze 3 zenbakiko bizilagun batek salatu du harriak jausten direla kale horretara goiko lursailetik, non Pitxargain baserritik eroritako harriak eta harri-morroiloak pilatzen diren. Eskatu du berehala konpontzeko.

Aldatze 3 gainean udalaren lursail bat dago, aspaldiko lagapen baten ondorioz. Udalak behin baino gehiagotan garbitu du lursail hori.

Erortzen diren harriak, Pitxargain baserriaren jabetzako lur gaineko mugaren hormatik jausten dira. Ingurua mantentzeko eskatu zaio jabeari, baina ez du erantzunik eman, baliabiderik ez duelako.

Udalak arrisku-egoerak balioetsi ditu, eta dagoeneko jardun du inguruan eror zitekeen zuhaitz bat kentzen

Udaltzaingoa

Udaltzaingoaren jarduketa eta kontrol handiagoa eskatzen du asteburu gauetan, hiriaren erdigunean.

Astebukaeretakoko segurtasuna eta gertakariak garrantzizkoak dira Udaltzaingoarentzat. Alderdi horiek hobetzeko, gaueko txanda indartzen da, eta etengabe Ertzaintzaren koordinazioa hobetzeko lan egiten da; horretarako,

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdigunea-ekialdea 15/11/2022

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Bizilagun batek jakinarazi du Baratze tabernaren aparkaleku ondoan arbola bat dagoela gaitzen bat duena.	arduradunekin harreman zuzenean egoten dira eta aldian-aldian bilerak egiten dituzte. Lan-agindu bat egin zen: gaixorik zegoen arbola erretiratu eta berri bat jarri zen (2023-01-11).
Zerbitzuak	Arno tabernaren plazatxoan dauden kutxatilak garbitzeko eskatu du. Dioenez, lirdingaz eta ostroz beterik daude.	Mankomunitateari abisua eman zaio, eta hark jakinarazi digu auzoko bilerak egin ziren garaian oraindik ez zela udalerriko hustubideak mantentzeko lan prebentiborik egin; hala ere, hori aldatu egin da. Hustubideak garbitu egin ziren eta gainera haien mantenimendua egiten da.
ZERBITZUA	Bidebarrieta inguruan uso asko daudela-eta kexu da.	Abisua eman zaio usoak erretiratzeko arduradunari.
Zerbitzuak	Batek eskatu du aparren bat jartzeko Errebalgo parkingaren irteeran dagoen postean, zeren, dioenez, bihurgunea oso itxia da eta autoek toki gutxi dute pasatzeko.	Azaroaren amaieran babesgarri bat jarri zen (horia eta beltza), eta soluzioa eman zitzaion arazoari.
Obrak	Errebalgo garajeen -2 solairuan hezetasunak eta ur-filtrazioak daudela salatu du, Errebalgo tabernaren saneamenduaren ondorioz sortuak.	Konpondu egin zen.
Udaltzaingoa	Jardiñetako auzotar batek salatu du kamioi oso handiak sartzen direla auzoan eta ezin dutela maniobrarik egin. Kartelen bat jartzeko eskatu du, kamioiei ohartarazteko.	Badira seinaleak debekatzen dutenak 2,5 tonatik gorako ibilgailuak sartzea.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdigunea-ekialdea 15/11/2022

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Salatu du Jardifietan inork ez duela errespetatzen 30 Km/h-ko abiadura-murrizketa.	Galtzada estua da; kalearen bi aldeetan ibilgailuak egoten dira aparkatuta, 21 zenbakiaren aurrean abiadura-banda murriztailea du; oinezkoentzako bi pasagune goratu daude, bata 9 zenbakiaren aurrean eta bestea 15 zenbakiaren aurrean; horrek guztiak zaildu egiten du ibilgailuak 30 km/h-tik gorako abiaduran zirkulatzea.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek galdetu du ea Eibarrek ba ote duen Babes Zibileko Planen bat.	Eibarrek Babes Zibileko planei dagokienez, adierazi behar da ez duela halako planik.
Udaltzaingoa	Herrian abiadura murrizteko pasabide goratuen altuera arautzeko araurik ba ote dagoen galdetu du. Esan du horietako batzuek altuera handia dutela.	Badago jarraibide tekniko bat (FOM/3053/2008 Agindua), Estatuko Errepide Sareko errepideetan abiadura-murriztaileak eta zeharkako alerta-zerrendak jartzeari buruzkoa.
Zerbitzuak	Txomoko parkea gehiago garbitzeko eskatu du bizilagun batek.	Mankomunitateari eskabidea jakinarazi ondoren, adierazi digu garbitzeko makina egunero pasatzen dela; gainera, ureztatu egiten da sarri eta desugertzeko makina aldi behin pasatzen da.
Zerbitzuak	Batek galdetu du ea San Andres ikastetxearen aurrean dauden edukiontziak lekuz alda daitezkeen. Dioenez, zebra-bide baten ondoan egonik, oinezkoek eta gidariek ez dute ondo ikusten, eta oinezkoak errepidera irten behar dira ea autorik datorren ikusteko.	Ingurua ikuskatu ondoren, ez da beharrezkotzat jotzen edukiontziak birkokatzea, zeren espaloien belarriak behar besteko ikusgaitasuna ematen die bai gidariei bai oinezkoiei.